

## Eraikuntza eta eraispenetako hondakinak tratatzeko Gasteizko instalazioa ustiatzeko araudia

Zioen azalpena.

I. kapitulua.- Orokortasunak.

1. artikulua.- Helburua.
2. artikulua .- Definizioak.
3. artikulua. - Erabiltzaileak.
4. artikulua. - Ustiapenaren kudeaketa.
5. artikulua.- Produktuak tratatzeko tarifak eta produktuen salmenta prezioak
- 5.1.- Produktuak tratatzeko tarifak
- 5.2.- Agregakin birziklatuen eta beste produktu balorizagarri batzuen salmentaprezioak.
6. artikulua.- Ordutegia.

II. kapitulua.- Hondakinak onartzea eta hartzea

Lehen atala. Hondakinei buruzkoa.

7. artikulua.- Onar daitezkeen hondakinak.
  8. artikulua.- Onartu ezin diren hondakinak.
- Bigarren atala. Hondakinak onartzeko prozedura.
9. artikulua.- Hondakinak onartzeko prozedura.
  - 9.1. Erabiltzaileek aurkeztu beharreko dokumentazioa.
  - 9.2. Hondakinak egiaztatzea
- Hirugarren atala. Sarbideak eta entregatzeko baldintzak.
10. artikulua.- Sarbide kontrola.
  - 10.1.- Sartzeko puntua.
  - 10.2.- Pisaketa kontrolatzea.
  11. artikulua.- Hondakinak entregatzeko baldintzak.

III. kapitulua.- Hondakinak deskargatzea eta botatzea.

12. artikulua.- Sarbidea eta instalazioan egotea.
13. artikulua.- Hondakinak deskargatzea.
14. artikulua.- Deskargatzeko zonak.
15. artikulua.- Instalaziotik ateratzea.

IV. kapitulua.- Berreskuratzea, balorizatzea eta birziklatzea.

16. artikulua.- Hondakinak maneatzea.
17. artikulua.- Lortutako produktuen kudeaketa.
18. artikulua.- Baztertuen eta hondakin arriskutsuen kudeaketa.

V. kapitulua.- Lortutako produktuak, baztertutako eta hondakin arriskutsuak kargatzea eta kentzea.

19. artikulua.- Sarbidea eta instalazioan egotea.
20. artikulua.- Materialak kargatzea.
21. artikulua.- Kargatzeko zonak.
22. artikulua.- Instalaziotik ateratzea.

VI. kapitulua.- Betebeharrak eta zigorrak.

23. artikulua.- Erabiltzaileen betebeharrak eta erantzukizunak
24. artikulua.- Arau-haustek
25. artikulua.- Zigorrak

VII. kapitulua.- Instalazioaren funtzionamendua.

26. artikulua. Lan arriskuen prebentzioa.
- Azken xedapena.



## **Zioen azalpena.**

Vitoria-Gasteizko Udal Hondakinak Kudeatzeko Plan Integralean (2000-2006) honako hauek biltzen dira: alde batetik, hondakinen –eta bereziki gehiengoa direnena, hala nola eraikuntzakoak eta eraispeneoak– berrerabilera edota birziklatzea handitu ahal izateko behar diren azpiegiturak jartzeko premia dago Udalerrian; eta beste alde batetik, Gardelegiko zaborteziaren bizitza erabilgarria luzatzeko premia dago, zuzenean edo tratamendu baten bitartez ziklo ekonomikoan berriz ere sar litezkeen materialak sartzea saihestuz.

Zabortezi Zerbitzuaren Arautegiak ezartzen du "aurretik tratatu diren hondakinak –geldoak nahiz arrisku gabeak– soilik bota ahal izango direla Gardelegiko zaborteziaren". Xedapen hori ez zaie aplikatuko tratamendua teknikoki gauzatu ezin zaien hondakinei edo tratamendu horren bitartez hondakin kopurua edo horien arriskugarritasuna murriztu ezin bada".

Eraikuntza- eta eraispene-jardueren ondoriozko harrizko, zeramikazko eta antzeko materialak heterogeneoak izateak homogeenak eta kalitatezko produktu birziklatu aratuak bihurtzeko tratamendu bat aplikatzen da, partikularik ez duen produktu garbi bat eta gorputz arin nahiz organikoak lortzeko; horretaz gain, berariazko kalitate-kontrol zorrotzak aplikatzen dira. Kontrol horiek tratamendu-ildo bakoitzean eta behar diren ekipoen funtzionamenduan parte hartzen duten prozesuen ezagueran oinarrituta daude.

2004. urtean, Udalak Bideragarritasun Azterlan bat egin zuen Eraikuntza eta Eraispene Hondakinak Tratatzekeko Instalazio bat jartzeko Vitoria-Gasteizen. Azterlan horren ondorioak honako hauek izan ziren: teknikaren, lurraldearen, ingurunearen, gizartearen eta ekonomiaren alorretik gauza zitekeela mota horretako instalazio bat.

Horren ondorioz, urte horretan bertan, lehiaketa bat deitu zen proiektua idazteko, obrak egikaritzeko eta Eraikuntza eta Eraispene Hondakinak tratatzeko instalazio bat ustiatzeko, adierazitako zerbitzua zeharkako kudeaketako administrazio-kontratuaren –emakidamodalitatean– bidez gauzatzuz. Ondorengo urteetan jarduera-lizentzia lortu da, eraikitzeko proiektua egin da, eta instalazioa eraiki da.

2007. urtean, abian jartzen denean, Gardelegiko zaborteziaren ezin izango da bota tratamendurik aplikatu ez zaien Eraikuntza eta Eraispene Hondakinak; horretaz gain, berriz erabil daitezkeen edo birzikla daitezkeen material guztiak –harrizkoak nahiz harrizkoak ez direnak– berreskuratuz ahal izango dira, balorizatu ezin dena bakarrik ezabatuz.

## **I. kapituluak.- Orokortasunak.**

### **1. artikulua.- Helburua.**

Arautegi honen helburua honako hau da: Eraikuntza eta Eraispene Hondakinak Tratatzekeko Vitoria-Gasteizko Instalazioa arautzea, bertako erabiltzaileekiko harremanaren ikuspegitik, behar bezalako kudeaketa eta ustiapena lortzeko.

Instalazio horren ardura honako hau izango da: onar daitezkeen eta Arautegi honetako 7. artikuluan zehaztu diren hondakinak hartzea, biltegiatzea, maneiatzea eta tratatzea, baita berreskuratutako materialak eta birziklatutako agregakinak merkaturatzea eta baztertutzat hartu diren materialak zaborteziara eramatea ere. Era berean, Eraikuntza eta Eraispene Hondakinekin nahastuta Instalaziora iristen diren hondakin arriskutsuak biltegiatutako dituzten baimendutako kudeatzaileari eman arte.

### **2. artikulua.- Definizioak.**

Arautegi honi dagokionez, honako hauek dira:

- Hondakinak: Hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legearen eranskinean biltzen diren kategorietako bateko sustantzia edo objektu oro, jabeak uzten duena edo uzteko asmoa duena. Nolanahi ere, halakotzat hartuko dira Erkidegoko Erakundeek onartutako Hondakinen Europako Katalogoan (CER/HEK) azaltzen direnak.

- Arriskutsuak ez diren hondakinak: Hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legearen 3. artikulua c) idatz-zatian hondakin arriskutsuei buruz ematen den definizioan bilduta ez dauden hondakinak.

- Eraikuntza- eta eraispen-hondakinak (EEHak): eraikuntza-prozesuen obra berriak, nahiz eraispenak, erreformak, birgaitzeak, obra publikoak (hala nola azpiegiturak, bideak, komunikazioak eta abar), eraikuntzarako elementuak eta osagaiak-fabrikatzeko prozesuen (hormigoizko prefabrikatuak, loza sanitarioak, zeramikoak eta abar) ondorioz hiri-ingurunean sortzen direnak eta Hiri Hondakin Solido gisa ezagutzen direnetan bilduta ez daudenak (hondakin horien konposizioa kuantitatiboki eta kualitatiboki desberdina delako). Honako elementu hauek eratzen dituzten hondakin geldoak dira batez ere: lurra eta agregakinak nahasita, hormigoihondakinak, zoladura asfaltikoen, material erregogorren, adreiluen, beiraren eta plastikoen hondakinak, eta oro har, lurra mugitzearen eta eraikin berriak eta azpiegitura-obrak eraikitzearen ondorioz sortzen diren hondakin guztiak, baita eraikin zaharrak edo zaharrak ez direnak eraistearren edo konpontzearen ondorioz sortzen direnak, hala nola igeltsua, ferralla edo zura.

- Jabea: hondakinak sortzen dituen pertsona fisikoa edo juridikoa, edo hondakin horiek dituen, eta kudeatzailea ez dena.

- Kudeatzailea: Hondakinen kudeaketa osatzen duten eragiketaren bat gauzatzen duen pertsona fisikoa edo erakundea -publikoa nahiz pribatua-, eragiketa horien ekoizlea izan ala ez.

### **3. artikulua.- Erabiltzaileak.**

Eraikuntza eta Eraispen Hondakinak (EEHak) ekartzen dituzten pertsona fisiko edo juridiko guztiak bota ahal izango dituzte hondakinak Tratamendu Instalaziora, betiere hondakin horiek Vitoria-Gasteiz hirikoak, Vitoria-Gasteizko Udal Mugartea osatzen duten udal-erakunde txikiagokoetakoak (UETak) eta Arabako Lurralde Historikoko gainerakoetakoak badira, eta Instalazioaren enpresa emakidadunari baimena eskatu ondoren. Dena dela, Vitoria-Gasteizko Udalak onartzeko agintzen dituen hondakin guztiak onartu beharko ditu emakidadun enpresak.

### **4. artikulua.- Ustiapenaren kudeaketa.**

Vitoria-Gasteizko Udalak UTE RCD GARDELEGI 2005 Aldi Baterako Enpresa Elkarteari agindu dio Tratamendu Instalazioaren ustiaketaren kudeaketa. Adierazitako Elkartea honako hauek osatzen dute: SUFI, SA, LANBIDE EMPRESA CONSTRUCTORA, SA, eta CONTENEDORES ESCOR VITORIA, SL enpresek.

### **5. artikulua.- Produktuak tratatzeko tarifak eta produktuen salmenta prezioak**

#### **5.1.- Produktuak tratatzeko tarifak**

Tratatzeko Instalazioaren emakidadun enpresak, zerbitzu hori betetzeagatik, tarifa bat ordaintzeko eskatuko die erabiltzaileei. Tarifa hori urtero ezarriko da eta Udalak onartu beharko du aurretiaz.

Emakidadun enpresak eskatu ahal izango du tarifa ordaintzeko autoordainketaerregimenean, eta tarifa hori tratamendu-eskaerarekin batera aurkeztu beharko da.

Tarifaren behin-behineko ordainketa baimen hori eskatzen denean gauzatu ahal izango da.



Tarifa horiek Instalazioan sartzeko gunean egongo dira, kartel batean, erabiltzaileek ikus ditzaten.

Hondakina hainbat motatako hondakinek osatzen badute, tarifa altuena duen hondakinaren tarifa aplikatuko da.

Kasu bakoitzean aplikatu behar den tarifa ezartzeko irizpideak honako hauek dira:

Eraikuntza eta Eraispen Hondakin (EEH) aukeratuak:

Eraispenetatik eratorritakoak dira. Eraispenak egitura baten gainean egindako jardunak dira, egitura eraistera –osorik edo partzialki– bideratuak. Horien ezaugarria da material homogeenoa, hormigoi, harri eta antzeko material ugari izaten dutela, eta, gehienetan, ez dutela beste hondakinik izaten. Oro har, oso garbi iristen dira, egitura zati handiez eraituak, eta hondakin fin oso gutxi izaten dute.

EEH nahasiak:

Erreformen eta obra berrien ondorioz sortzen dira. Geldoak ez diren beste hondakin batzuekiko nahasteka nabarmen samarra izaten da. Ez dira besteak bezain homogeenok izaten eta hondakin fin gehiago izaten dute. Multzo honetan eraikuntzako beste material batzuekin nahasita dauden harrizko material guztiak biltzen dira, hala nola, karea, zementua, harri-morroiloak, hormigoi-hondakinak, eta abar. Material horiek birziklatuak izateko nolabaiteko gaitasuna eta aukera dute, betiere aurretik garbitzeko prozedura aplikatzen bazaie.

EEH oso nahasiak:

Normalean erreformatatik sortzen dira eta harrizko zati maila balorizagarri ertaina edo baxua izaten dute, eta harrizkoak ez diren material balorizagarri kantitate handiak izaten dituzte. Arestian adierazitakoek baino askoz heterogeneotasun handiagoa dute eta hondakin fin gehiago. Hondakin mota hori oso ondo sailkatu eta garbitu behar da.

Hondakin arriskutsuak dituzten EEHak:

Hondakin arriskutsu ugari (baina ez dute ez onartuak izateko adina) dituzten EEHak.

Zura duten EEHak:

Zurezko hondakin ugari dituzten EEHak.

Instalazioa ustiatzeko prozesuaren lehenengo urtean azterlan bat egingo da utzitako materialaren dentsitatea aintzat hartuta aplikatu behar den tarifa identifikatzen laguntzeko.

5.2.- Agregakin birziklatuen eta beste produktu balorizagarri batzuen salmenta-prezioak.

Tratatzeko Instalazioaren emakidadun enpresak prezio jakinak ordaintzea eskatuko du agregakin birziklatuak eta beste produktu balorizagarri batzuk saltzeagatik. Prezio horiek modu librean ezarriko ditu emakidadun enpresak.

Adierazitako prezioak saldutako materialaren ezaugarrien eta kalitateen arabera aldatu ahal izango dira. Nolanahi ere, jendaurrean jarriko dira Vitoria-Gasteizko Udalarentzat ez ezik pertsona edo enpresa erosleentzat ere. Prezio horiek Instalazioan sartzeko gunean egongo dira, kartel batean, erabiltzaileek ikus ditzaten.



## **6. artikulua.- Ordutegia.**

Hondakinak Instalazioan hartzeko ordutegia honako hau izango da:

- Astelehenetik ostiralera: 08:00etatik 19:30era

- Larunbatetan: 08:00etatik 13:00etara

Ordutegi hori Instalazioan sartzeko gunean egongo da, kartel batean, erabiltzaileek ikus dezaten.

Salbuespen kasuetan izan ezik, Instalazioaren emakidadun enpresek baimena eman ondoren, ezarritako ordutegitik kanpo ez da onartuko hondakinak deskargatzea.

## **II. kapitulua.- Hondakinak onartzea eta hartzea**

### **Lehen atala. Hondakinei buruzkoa.**

#### **7. artikulua.- Onar daitezkeen hondakinak.**

Tratatzeko Instalazioan onartuko diren hondakinak honako hauek dira: Vitoria-Gasteizek, Vitoria-Gasteizko Udal Mugartea osatzen duten udal-erakunde txikiagoek eta Arabako Lurralde Historikoko gainerako herriek sortutako Eraikuntza eta Eraispén Hondakinak. 2000/532/EE Erabakia aldatzen duen 2001eko urtarrilaren 16ko 2001/118/EE Erabakiak – Batzordearena– onartutako Hondakinen Europako Katalogoaren (HEK) arabera, honako hau da hondakinen zerrenda:

1701 Hormigoia, adreiluak, teilak eta zeramikazko materialak.

170101 Hormigoia.

170102 Adreiluak.

170103 Teilak eta zeramikazko materialak.

170107 Hormigoia, adreiluen, teilen eta zeramikazko materialen nahasteak,

170106 kodean zehaztu direnak ez bezalakoak.

1703 Nahaste bituminosoak, harrikatz-mundruna eta mundrun-produktuak.

170302 Nahaste bituminosoak (ez dira 170301 kodean zehaztutakoak).

170504 Lurrak eta harriak (ez dira 170503 kodean zehaztutakoak).

170508 Burdinbideen balastoa (ez da 170505 kodean zehaztutakoa).

1709 Bestelako eraikuntza- eta eraispén-hondakinak.

170904 Eraikuntza- eta eraispén-hondakinak (ez dira 170901, 170902 eta 170903 kodeetan zehaztutakoak).

Hondakin bat kode jakin batean azaltzeak ez du esan nahi Instalazioan nahitaez onartu behar denik; izan ere, hondakina onartu ahal izateko hondakinak onartzeko prozedura (arautegi honetako 9. artikulua) bete beharko baitu.

Instalazioaren emakidadun enpresak uko egin ahal izango dio hondakin onargarrietan bilduta dauden zenbait hondakin Instalazioan sartzeari, baldin eta interes publikoko

arrazoiak, edo Instalazioaren ohiko eta behar bezalako ustiapena aldatzen duten kausak direla medio, ez onartzea edo beste zaborgune batean botatzea komeni bada.

Emakidadun enpresak hartutako erabakia behar bezala arrazoitu beharko zaio bai erabiltzaileari, bai Vitoria-Gasteizko Udalari.

### **8. artikulua.- Onartu ezin diren hondakinak.**

Tratatzeko Instalazioan ezin izango dira onartu hondakin mota hauek:

- Arautegi honetako 9.2 artikuluan azaltzen den karakterizazio-proba egindakoan onartu ezin diren hondakinak
- Indarreko legediaren arabera, arriskutsutzat tipifikatutako hondakinak.
- Eraikuntza-eta eraispen-hondakintzat hartu ezin diren hiri-hondakinak.
- Meatzeetan egiten diren erauzketa-jardueratik eratorritako hondakinak.
- Igeltsuz osatutako eraikuntzarako materialak.
- Zona poluituetatik hondeatutako materialak.
- Industria-hondakin toxikoak.
- Hondakin erradioaktiboak.
- Ospitaleetako eta kliniketako hondakinak.
- Farmazia-hondakinak eta sendagai soilak.
- Abelazkuntza-jardueratik eratorritako hondakinak, albaitaritza-hondakinak, hildako animalien hondakinak, hiltegietako hondakinak eta animalien azpiproduktuen hondakinak.
- Produkzio kimikoa edo toxikotasuna sortzeko arriskua duten hautseztatutako produktu solidoak edo lokatzak.
- Hondakin lehergarriak, korrosiboak, oxidatzaileak, erraz su hartzen dutenak edo su hartzen dutenak, narritagarriak eta gas sukoiak edo urarekiko kontaktuan ke azidoak askatzen dituztenak.
- Automobilak, eta ibilgailuak zatikatzearen ondoriozko hondakinak (zaticatzailearen eta bitarteko dentsoen hondakinak) eta antzeko beste hondakin batzuk.
- Pneumatiko erabiliak, osoak nahiz zatituak.
- Aurretiazko baimena izan arren, ondoren azalduko diren ezaugarrietako bat duten hondakinak ez dira onartuko:
  - Sutze-egoeran daudenak.
  - 50 °C-tik gorako tenperatura dutenak.
- Deskargatzerakoan, edo ondoren, maneiatzean edota tratatzean pertsoneri, gauzei edo ingurumenari arriskuak eragin diezazkioketenak.

## **Bigarren atala. Hondakinak onartzeko prozedura.**

### **9. artikulua.- Hondakinak onartzeko prozedura.**

#### 9.1. Erabiltzaileek aurkeztu beharreko dokumentazioa.

Instalazioan hondakinak utzi nahi dituen erabiltzaileak honako dokumentu hauek gutxienez aurkeztu beharko ditu:

- hondakina sortu duen erakundea,
- hondakina sortu duen obraren izena eta kokapena,
- garraiatu duen ibilgailu mota eta haren matrikula,
- garraiatu duen ibilgailuaren jabea eta harremanetarako telefonoa,

#### 9.2. Hondakinak egiaztatzea.

Kargamentu batean Instalaziora iristen diren hondakinak instalazioan onar daitezkeen hondakinen artean daudela egiaztatzeko, egiaztapen azkarreko metodoak aplikatuko ditu enpresak. Metodo horiek honako hauek dira: kargamentuari begizko ikuskapen bat egitea deskargatu aurretik eta deskargatu ondoren, baita nahitaezkotzat jotzen den beste edozein ikuskapen egitea ere.

Begizko ikuskapena egindakoan instalazioan onartu ezin diren hondakinak direlako arrazoizko susmoak badaude, emakidadun enpresak karakterizazio-proba bat egingo du, laborategi homologatu baten bitartez, eta horri esker definitu ahal izango da kargamentua onartuko den ala ez. Hondakina onartzen ez bada, erabiltzaileari itzuliko zaio, eta erabiltzaileak ordainduko ditu sortutako gastuak, honako hauek barne: analitikoak, hondakinak biltzeak eta garraiatzeak eragindakoak, eta Instalazioan ondorioak izan dituzten zonak garbitzeak, ez ezik kutsadura kentzeak eragindakoak ere, egon litezkeen erantzukizunak alde batera utzi gabe. Kasu horretan, emakidadun enpresak gertakariaren berri eman beharko dio Udalari.

Instalazioko emakidadun enpresak behar diren bitartekoak eta tresnak jarri ahal izango ditu erabiltzaileen eskura bota diren hondakinak biltzeko eta kentzeko, eta erabilitako bitartekoei dagokien tarifak ondorioak eragin liezazkieke arduradunei. Tarifa hori une horretan Gardelegiko zabortegian aplikatzen denaren baliokidea izango da, alde batera utzi gabe Instalazioa gelditzen bada, edo bertako jarduera murrizten bada, egin litezkeen erreklamazio ekonomikoak.

Ibilgailu bakoitzak garraiatutako kargaren begizko ikuskapenari esker, gainera, ezpurutasun-mailaren arabera, hondakinak era honetan sailkatu ahal izango dira; EEH hautatuak, EEH nahasiak, EEH oso nahasiak, hondakin arriskutsuak dituzten EEHak, edo zurak dituzten EEHak, eta horren ondorioz, hondakin horiek deskargatzeko gunea erabakiko da, baita kasu bakoitzean aplikatu behar den tratamenduagatik tarifa ere, Arautegi honen 5.1 artikuluan adierazitakoaren arabera.

Begiz ikuskatu ezin diren ibilgailuak ezin izango dira instalazioan sartu.

Hirugarren atala. Sarbideak eta entregatzeko baldintzak.

## **10. artikulua.- Sarbide kontrola**

### 10.1.- Sartzeko puntua.

Ibilgailuak Instalaziora sartzeko puntu bakarra gaur egun Gardelegiko zabortegira sartzeko gunea izango da, hau da, Vitoria-Gasteiztik Urizaharrerako L-122 Errepidearen 4,2 km-  
an dagoena. Sarbide hori ibilgailuak sartzeko eta ateratzeko erabiliko da.

Instalazioetarako sarrera mugatua izango da, instalazioetatik kanpoko pertsona orok bai-  
mena beharko du esparruan sartzeko; baimenik izan ezean, ezin izango du Instalazioaren  
sarrerako kontrol-postutik aurrera jarraitu.

Begiz ikuskatu ezin diren ibilgailuak ezin izango dira Tratatzeko Instalazioan sartu.

### 10.2.- Pisaketa kontrolatzea.

Iristen den hondakina ikuskatutakoan, eta EEHa delako onartutakoan, ibilgailua pisatuko  
da Instalazioaren sarreran dagoen baskulan.

Lehenik eta behin, ibilgailuak pisatuko dira sarrerako kontrolean.

Ondoren, ibilgailuaren gidariari adieraziko zaio non deskargatu behar duen, garraiatzen  
duen EEHaren ezaugarriak kontuan hartuta.

Hondakina deskargatutakoan, ibilgailua pisatuko da berriro, oraingo honetan irteeran  
dagoen baskulan, garraiatutako kargaren tara zehaztearren.

Adierazitako kontroleko arduradunek pisatze-lana amaitzen dutenean, pisaketaorriaren  
kopia bat emango diote kamioiaren gidariari. Orri horretan, ibilgailuaren kargaz gain  
honako datu hauek bilduko dira:

- ibilgailuaren mota eta matrikula,
- ibilgailuaren jabea eta harremanetarako telefonoa,
- hondakina sortu duen erakundea,
- garraiatu duen hondakin mota eta haren bolumena,
- pisaketa egiten den eguna eta ordua eta
- onarpenaren arduradunaren sinadura.

Aurrekoa bazter utzi gabe, Instalaziora hondakinak garraiatzen dituzten ibilgailuek arauz  
aplikatu behar diren onarpen-dokumentuak eta kontrolerako eta jarraipenerako doku-  
mentuak izango dituzte.

Bai itxaronaldietan, bai pisaketa-prosesuan edo sarrera-kontrollean, zorrotz bete behar  
dira ustiapeneko langileek emandako argibideak.

## **11. artikulua.- Hondakinak entregatzeko baldintzak.**

Ezin izango da edozein motatako hondakin entregatu, baldin eta hondakin horiek ga-  
rraiartzeko bereziki egokitutako ibilgailuetan eramaten ez badira; era berean, hondakin  
horiek Vitoria-Gasteizko Udalaren Garbiketako, Hiri Hondakin Bilketa eta Garraioko Orde-  
nantzan ezarritakoaren arabera garraiatu beharko dira.

Hondakinak garraiatzeko eta deskargatzeko garaian baldintzak egokiak izan ez direlako,  
Instalazioetan izaten den istripu ororen edo Instalazioari berari, ingurumenari edo hiruga-





rren bati eragiten zaion gaitz ororen erantzukizuna hondakinaren garraiolariak izango du, nahiz eta Instalazio barruan egon.

Hondakinak garraiatzeko eta deskargatzeko garaian baldintzak egokiak ez direlako, Instalaziorako sarbidean, edo Instalazio barruan hondakinak isurtzen badira, hondakin horiek garraiatu dituenak bildu eta kendu beharko ditu isuritako hondakinak, alde batera utzi gabe Instalazioa gelditzen bada, edo bertako jarduera murrizten bada, egon daitezkeen erantzukizunak.

Instalazioko emakidadun enpresak behar diren bitartekoak eta tresnak jarri ahal izango ditu garraiolariaren eskura, isuri diren hondakinak biltzeko eta kentzeko, eta hala badagokio, erabilitako bitartekoei dagokien tarifa ordaindu beharko dute arduradunek.

Tarifa hori une horretan Gardelegiko zabortegian aplikatzen denaren baliokidea izango da, alde batera utzi gabe Instalazioa gelditzen bada, edo bertako jarduera murrizten bada, egin litezkeen erreklamazio ekonomikoak.

Garraiolariak uko egiten badio haren erruz isuritako hondakinak biltzeari eta kentzeari, Instalazioak beteko du lan hori garraiolariaren kontura, alde batera utzi gabe egin litezkeen erreklamazio ekonomikoak, baldin eta Instalazioa gelditzen bada, edo bertako jarduera murrizten bada, edota Arautegi honetako 25. artikuluan ezarritako zigorrak aplikatu ahal izango dira.

### **III. kapitulua.- Hondakinak deskargatzea eta botatzea.**

#### **12. artikulua.- Sarbidea eta instalazioan egotea.**

Debekatuta dago baimenik gabeko, eta Instalazioko zerbitzutik edo ustiapenetik kanpoko pertsona eta ibilgailu oro sartzea Instalaziora.

Hondakinak deskargatzeko behar den deboran bakarrik egongo dira ibilgailuak eta ibilgailuetako pertsonak Instalazio barruan.

Instalazio barruan ezin izango da Instalazioaren ustiapenaren berezkoa ez den ibilgailurik, edukiontzirik edo antzekorik aparkatu, honako kasu hauetan izan ezik: matxura, ezinbesteko kasua, edo emakidadun enpresak horretarako berariazko baimena ematen badu.

Zorrotz bete beharko dituzte hondakinak botatzeko gunetara sartzeko bideetan seinalez-tatutako abiadura-mugak.

Hondakinak deskargatzeko, Instalaziora iristen diren ibilgailu guztiek atzera-martxako maniobraz ohartarazteko alarma akustikoa izan beharko dute eta alarma horrek behar bezala ibili beharko du.

Erabiltzaileek Instalazio barruan bete behar dituzten funtsezko arauak Instalazioaren sarreran dagoen kartel batean jarriko dira.

Era berean, Instalaziora sartzen diren kamioiek duten jomugaren (sailkapen-lerroa, tratamendu-lerroa, hartutako material birziklatuak, edo hartutako azpiproduktuak) arabera jarraitu behar dituzten ibilbideak beste kartel batean azalduko dira.

Instalazioaren barruan eta kanpoan bereizita azalduko dira ibilgailuentzako bideak eta oinezkoentzakoak.

### **13. artikulua.- Hondakinak deskargatzea.**

Arautegi honen 7. artikuluan adierazten diren eskakizunak betetzen dituzten hondakinak deskarga-zonara igaroko dira, eta eragiketa hori lan-arloan eta ingurumenarloan aurreikusitako segurtasunari dagokionez, neurri guztiak kontuan hartuta gauzatuko da.

Deskarga-zonarako sarbide guztiak behar bezala antolatuta eta seinaleztatuta egongo dira.

Hondakinak deskargatzeko, garraiolariak zorrotz eta doi-doi beteko dituzte emakidadun enpresako langileek emandako jarraibideak.

Nolanahi ere, deskargatzeko eragiketek ahalik eta eragozpen gutxien eragingo dizkiete langileei edo inguruneari, bereziki hautsa eta zarata sortzeari dagokionez, gainera, horretarako behar diren bitartekoak jarri beharko ditu abian emakidadun enpresak.

Hondakinak botatzeko guneetan deskargatuko dira, betiere emakidadun enpresako langileen jarraibideak kontuan hartuta.

### **14. artikulua.- Deskargatzeko zonak.**

Baimendutako hondakinak deskargatzeko hainbat zona egongo da Instalazioan.

Hondakinak honako gune hauetan deskargatuko dira: mota desberdinetako EEH garbia (hormigoia, zeramikoak, nahasiak, eta abar) botatzeko guneetan, eta EEH nahasia, EEH oso nahasia, hondakin arriskutsuak dituzten EEHak edo zura duten EEHak botatzeko guneetan. Era horretan eginez gero, tratamendu desberdinak aplikatu ahal izango dira lehendik zeuden hondakin mota beraren arabera, eta horrela, zenbait kasutan, sailkapen-lerroa elikatze eta, ondoren, tratamendu-lerroa, eta beste kasu batzuetan, garbiago daudelako, zuzenean tratamendu-lerrora bidaltzeko.

Deskargatzeko guneetan ezin izango da ibili ustiapen-lanei atxikita ez dagoen ibilgailurik, deskargatu behar diren ibilgailuak izan ezik.

Emakidadun enpresak seinale egokiak jarriko ditu eta jarrita edukiko ditu ibilgailuen eta oinezkoen zirkulazioa antolatzeko Instalazio barruan; horretarako, barruko zirkulaziobideak jarriko ditu, bai instalazioaren sarreran eta irteeran, bai deskarga-zonetan, bereziki oinezkoentzat diren ibilbideak eta ibilgailuentzakoak direnak bereiziz.

Instalazioan zona bat egongo da ibilgailuek –bai azertu beharreko karga duten ibilgailuak, bai ustiapenaren premiak direla medio deskargatzeko zain egon behar dutenak– itxaron dezaten.

Deskargatzeko zonetan ezin da baimenik gabeko pertsonarik egon.

Era berean, debekatuta dago Instalazioko hondakinak miatzea eta maneatzea, honako salbuespen-kasu hauetan izan ezik: ustiapenari atxikitako langileek hondakinak sailkatzeko, tratatzeko eta balorizatze egin behar dituzten eragiketak.

### **15. artikulua.- Instalaziotik ateratzea.**

Instalaziotik irteterakoan, ibilgailuek beren gurpil-azaletan hondakinak badituzte itsatsita, ongi-ongi garbitu beharko dira bide publikora atera aurretik, eta horretarako presiozko ura botako zaie.

Emakidadun enpresak egunero erregistratu beharko ditu instalazioan hondakinak deskargatu ondoren instalazioa uzten duten kamioien irteerak, eta garraioa gauzatu duen garraiolariari buruzko informazioa (izena, enpresa, matrikula) idatziz jasoko du, baita karga bidaltzeari dagokionez, langileek egokitzen dituzten informazio oro ere.

Halaber, materialak edo baztertuak dituzten (birzikla daitezkeen agregakinak, geldo baztertuak eta abar) kamioien irteerak erregistratuko dira kantitateak eta jomugak adieraziz. IV. kapitulua.- Berreskuratzea, balorizatzea eta birziklatzea.

#### **16. artikulua.- Hondakinak maneiatzea.**

Matxarda bat duen atzerapala erabiliz hondakinak dagozkien guneetan deskargatu ondoren, hondakin handienak baztertu dira.

Ondoren, zati arriskutsuak bereiziko dira prozesu-lerroetan sar ez daitezen eta azken produktua ez kutsatzeko. Zati horiek Instalazioko Hondakin Arriskutsuen (HA) biltegiara bidaliko dira baimendutako pertsonari edo enpresari entregatu arte.

Zamatzeko palen bitartez kargatu eta deskargatuko dira hondakinak prozesu-lerroetako elikadura-puntuetan.

Bereizteko postuetan eskuz maneiatu beharko da; hortaz, langileek behar den ekipamendua erabiliko dute laneko segurtasunari eta osasunari buruz indarrean dagoen legedia betetzeko.

Produktuak berreskuratzen diren prozesu-puntuetan (bereizgailu magnetikoak, ezpurutasun-bereizgailuak) edukiontzi metalikoen eta edukiontziak eramateko kamioien bitartez berreskuratuko dira produktuak.

#### **17. artikulua.- Lortutako produktuen kudeaketa.**

Berreskuratze- eta birziklatze-prozesuen ondorioz lortutako produktuak honako hauek dira:

##### **17.1.- Agregakin birziklatuak.**

EEH garbia tratatzeko lerroa edo EEH nahasia sailkatzeko lerroa une bakoitzean elikatzen den material motaren arabera, elikatutako produktu mota bakoitzaren granulometriak lortuko dira.

Granulometria horietako bakoitza identifikatutako eta horretarako jarritako leku batean biltegitratuko da.

Agregakin birziklatuak prozesuaren irteeragunetik biltegitratzeko lekuetaraino eramango dira zamatzeko palen edota uhal garraiatzaileen bitartez.

##### **17.2.- Baloriza daitezkeen beste produktu batzuk.**

###### **17.2.1.- Hondakin plastikoak.**

Material plastikoak bereizteko lerroetan bereiziko dira.

###### **17.2.2.- Papera eta kartoia.**

Papera eta kartoia bereizteko lerroetan bereiziko dira.

###### **17.2.3.- Hondakin metalikoak.**

Hondakin metalikoak hainbat bereizgailu magnetikotatik igaroko dira burdin elementuak bereizteko.

###### **17.2.4.- Zura.**

Prozesua elikatu aurretik paletak, kaxak, oholak eta oholtzarrak bereiziko dira.

Eskuzko bereizketaren bitartez bereiziko dira zura txikiak.

17.2.5.- Baloriza daitezkeen produktuak biltegiratu eta kudeatzea.

Produktu horiek sailkatutakoan biltegiratu egingo dira horretarako ezarritako lekuan.

Hondakinak baimena duen pertsonari edo enpresa kudeatzaileari entregatuko zaizkio.

### **18. artikulua.- Baztertuen eta hondakin arriskutsuen kudeaketa.**

Berreskuratze- eta birziklatze-prozesuen ondorioz lortutako baztertutako eta hondakin arriskutsuak honako hauek dira:

- *Tratamenduaren geldo baztertutak:* Zona degradatuak edo harrobiak zaharberritzeko erabiltzeko egokiak diren geldo baztertutak dira. Modu independentean biltegiratuko dira, eta ondoren, kamioietan kargatuko dira eta zaharberritzeko dauden harrobietara edota zona degradatuetara eramango dira.

Nolanahi ere, behar bezala erregistratuko dira material mota horien irteera eta jomuga guztiak.

- *Tratamenduaren arriskurik gabeko baztertutak:* birziklatzeko egokiak ez diren arriskurik gabeko baztertutak dira, duten ezaugarriarengatik edo egoeragatik bereizi ondoren aprobetxatu ezin direnak. Kamioietan kargatuko dira eta Gardelegiko Zabortegira eramango dira.

- *Hondakin arriskutsuak:* arriskutsuak ez diren hondakinekin nahasita Instalaziora irits daitezkeen hondakin arriskutsuak dira. Behar bezala biltegiratuko dira eta baimendutako pertsonen edo enpresa kudeatzaileen bitartez kudeatuko dira eta modu egokian dokumentatuko da kudeatzaileei entregatzen zaien hondakin oro.

Hondakin arriskutsuak Instalazioan biltegiratu ahal izango dira sei hilabetez gehienez.

### **V. kapitulua.- Lortutako produktuak, baztertutako eta hondakin arriskutsuak kargatzea eta kentzea.**

#### **19. artikulua.- Sarbidea eta instalazioan egotea.**

Arautegi honetako 12. artikuluan azaltzen den moduan egingo da, kasu honetan kargari aplikatuta.

#### **20. artikulua.- Materialak kargatzea.**

Prozesatutako materialak aurreikusitako biltegiratzeguneetan bilduko dira, betiere lanar-loko eta ingurumeneko segurtasunari dagokionez aurreikusitako neurri guztiak kontuan hartuta.

Karga-zonarako sarbide guztiak behar bezala antolatuta eta seinaleztatuta egongo dira.

Materialak kargatzeko, garraiolariak zorrotz eta doi-doi beteko dituzte ustiapenaren arduradunak emandako jarraibideak.

Nolanahi ere, kargatzeko eragiketek ahalik eta eragozpen gutxien eragingo diete pertsonen edo ingurunearen, bereziki hautsa harrotzeari eta zarata sortzeari dagokionez.

## **21. artikulua.- Kargatzeko zonak.**

Berreskuratutako materialak eta birziklatutako agregakinak kargatzeko hainbat zona egongo da Instalazioan.

Kargatzeko guneetan ezin izango da ibili ustiapen-lanei atxikita ez dagoen ibilgailurik, kargatu behar diren ibilgailuak izan ezik.

Emakidadun enpresak seinale egokiak jarriko ditu eta jarrita edukiko ditu ibilgailuen eta oinezkoen zirkulazioa antolatzeko Instalazio barruan; horretarako, barruko zirkulaziobi-deak jarriko ditu, bai instalazioaren sarreran eta irteeran, bai deskarga-zonetan, bereziki oinezkoentzat diren ibilbideak eta ibilgailuentzakoak direnak bereiziz.

Kargatu behar diren ibilgailuek itxaroteko zona bat egongo da Instalazioan.

Kargatzeko zonetan ezin da baimenik gabeko pertsonarik egon.

Era berean, debekatuta dago Instalazioko material berreskuratutako eta agregakin birziklatutako maneiatzeari; honako salbuespen-kasu hauetan izan ezik: ustiapenari atxikitako langileek material horiek kargatzeko edota lekuz aldatzeko eragiketarako egin behar badituzte.

## **22. artikulua.- Instalaziotik ateratzea.**

Arautegi honetako 15. artikuluan azaltzen den moduan egingo da, kasu honetan kargari aplikatuta.

Emakidadun enpresak egunero erregistratu beharko ditu produktuen (agregakin birziklatutako eta harrizkoak ez diren materialak) eta baztertuen irteerak Irteeren Erregistro batean, bertan berreskuratutako produktuen, materialen eta baztertuen irteerak idatziko dira batez ere (kantitateak, kalitateak, jomugak, fakturazioa, eta abar), baita garraioa eramango duen garraiolariari buruzko informazioa (izena, enpresa, matrikula) eta karga bidali behar duten langileek egokitzen duten informazio oro ere.

## **VI. kapitulua.- Betebeharrak eta zigorrak.**

### **23. artikulua.- Erabiltzaileen betebeharrak eta erantzukizunak**

Arautegi honetan bildu diren betebeharez gain, Instalazioan tratatzeko hondakinak sortzen eta garraiatzen dituzten pertsona fisikoek edo juridikoek honako hauek eman beharko dizkiote emakidadun enpresari edota Udalaren Zerbitzu Teknikoei: hondakinak garraiatzeko eta tratatzeko hartutako aurreikuspenak betetzen direla bermatzeko eta pertsonen eta ingurumenaren osasuna babesten dela bermatzeko enpresak nahiz zerbitzu teknikoek egokitzen duten informazioa, ikuskapena, laginak hartzea eta gainbegiratzea.

Arautegian azaltzen diren betebeharrak ez betetzearen ondoriozko erantzukizunak, bestalde, hondakinak sortzen dituenari eta elkertasunez garraiatzen dituenari eskatu ahal izango zaizkie.

### **24. artikulua.- Arau-haustekak**

Arautegi honek arautzen dituen gaiei dagokienez, honako hauek dira arau-hauste administratiboak: arautegiaren edukia osatzen duten arauak hausten dituzten ekintzak edo ez-egiteak.

Honako hauek hartzen dira arau-hauste oso larritzat:

- Instalazioan onartu ezin diren hondakinak (Arautegi honetako 8. artikuluan bilduta daude) entregatzea Instalazioan.

Honako ekintza edo ez-egite hauek hartzen dira arau-hauste larritzat:

- Arautegi honetako 8. artikuluan aipatzen diren zirkunstantzietako bat duten hondakinak deskargatzea.
- Behar ez bezala bota diren hondakinak kentzeari eta garbitzeari uko egitea.
- Instalazioko emakidadun enpresak eskatutako informazioa nahitaez eman behar izateko premia ez betetzea, edo datu faltsuak edo iruzurrezkoak ematea.

Adierazitako informazioa hondakinen nondik norakoari, kantitateari edo jatorriari buruzkoa da.

- Instalazioan ezarritako abiadura baino abiadura handiagoan ibiltzea ibilgailuak Instalazio barruan, edota pertsoneri, beste ibilgailu batzuei edo Instalazioko elementuei arriskua eragiten dien abiaduran ibiltzea.
- Ikuskatzeko, laginak hartzeko eta gainbegiratzeko eginkizunak gauzatu ahal izateko aukera eragozteko modu aktiboan edo pasiboan.

Constituyen infracciones leves las siguientes acciones u omisiones:

- Instalazioan baimenik gabe sartzea.
- Instalazioaren emakidadun enpresaren oharrak haustea.

## **25. artikulua.- Zigorrak**

Arautegi honetako arau-hausteak honako eskala honen arabera zigortuko dira:

- Arau-hauste oso larriak: 1.500,01 eurotik 3.000,00 eurora bitarteko isuna, edota, hala badagokio, instalazioa erabiltzeko debekua.
- Arau-hauste larriak: 750,01 eurotik 1.500,00 eurora bitarteko isuna.
- Arau-hauste arinak: 300,00 eurotik 750,00 eurora bitarteko isuna.

Zigorrak aplikatzerakoan honako hauek hartuko dira kontuan: arau-haustea nahita edo behin baino gehiagotan egin den eta eragindakoa kalteen nondik norakoa, baita urtebeteko epean behin baino gehiagotan mota bereko arau-haustea egin izana ere, epai irmoak horrela adierazten duenean.

Nolanahi ere, ezar litezkeen zigorrak alde batera utzita, arau-haustea gauzak lehen zeuden bezala utzi beharko ditu eta jabari publikoan eragindakoa ordaindu beharko ditu Instalazioko emakidadun enpresak eta Udalaren Zerbitzu Teknikoek aztertu ondoren.

Vitoria-Gasteizko Udalak zigor-ahalmena baliatzeko dagokion espedienteari hasiera eman beharko zaio eta hura bideratu beharko da, betiere legezko eta arauzko xedapenetan ezarritakoarekin bat etorritik. Espediente horri hasiera emango zaio emakidadun enpresak Udalarari igorritako arau-hausteari buruzko informazioa kontuan hartuta. Aurreikusitako zigorrak eskumen hori esleituta daukan organoak jarriko ditu.

Arautegi honetan aurreikusitako zigor oro ezartzeak ez du alde batera uzten zigortutako pertsonak edo enpresak izan dezakeen erantzukizun zibila edo penala.



## **VII. kapitulua.- Instalazioaren funtzionamendua.**

### **26. artikulua. Lan arriskuen prebentzioa**

Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko 31/95 Legearekin eta Prebentzio Zerbitzuen Arautegiarekin, 39/97 ED, bat etorritz Arriskuen Ebaluazio bat egingo da, eta hortik eratorriko da dagokion Emergentsia Plana.

Arriskuen Ebaluazioan garatu beharreko jardueren eta ingurunearen ondorioz aurreikus daitezkeen arriskuak zehaztuko dira eta prebentzio-neurri egokiak ezarriko dira. Honako gai hauek landuko dira: langileak prestatzea eta informazioa ematea, babesgarriak – indibidualak eta kolektiboak–, seinaleak, hainbat lanen arteko nahasketak, laneko medikuntza, lehen laguntzetarako arauak, argiztapena, suteen aurkako prebentzioa, eta abar.

Emergentsia Planean egon litezkeen emergentsia-egoerak azalduko dira eta kasu bakoitzean gauzatu beharreko jardunak zehaztuko dira.

### **Azken xedapena**

Arautegi hau Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hamabost egunera jarriko da indarrean, eta arautegi honen aurka dagoen edo horrekin kontraesan dagoen udal xedapen oro indargabetuko da.